



## KONPROMISO PUBLIKOA TURISMOAN

Uribeko turismo-sektoreak eskualde-mailako sektore ekonomiko gisa duen **garrantzia** ezagututa, baita Bizkaiaren eta Euskadiren irudi gisa ere, lurraldeko helmuga turistiko nagusietako bat izanik, turismo-eskaintza garatzeko, dinamizatzeko eta sustatzeko ibilbide luzea eginda, euskal kulturarekin eta tradizioekin batera, eskualdea erreferente bihurtu du. Horregatik guztiagatik, gure ustez,

Uribeko turismo-sektorea joera berrietara bideratuz bultzatzeko eta sendotzeko premian **oinarrituta**, haren lehiakortasuna hobetzeko ekintzen eta metodologiaren bidez, euskal kultura eta tradizioak errespetatuz, eta turismo-garapen iraunkorra eta birsortzailea sustatuz,

**Kontuan hartuta** turismo-sektoreak betetzen duen papera, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko iturri gisa, ezinbesteko sektorea izatea gure udalerrriak dinamizatzeko, eta eskualdeko landa-eremurik landatarrenetan ekonomia dibertsifikatzeko bide nagusietako bat izatea, lehen sektorearekin sor daitezkeen eta sortu behar diren sinergiekin batera,

Gero eta zorrotzagoa den gizartearen joera eta bidaiatzeko modu berriez **jabetuta**, balioa eman behar diegu paisaiaren aberastasunari, natura-baliabideen biodibertsitate handiari eta kultura- eta gastronomia-ondareari, betiere Uriben bizi direnen ongizatea errespetatuz eta bermatuz.

**Jakinik** ekintza-batasunak eta ahaleginen koordinazioak indartsuago egingo gaituztela eta bide egokian kokatuko gaituztela arrakasta-berme handienekin eta bizi garen ingurunea eta bertan bizi diren pertsonak errespetatzen dituen garapenarekin,

**Jata-Ondo**, Uribeko Landa Garapeneko Elkarateak,

**Konpromisoa hartzen du** Uriben garatu beharreko politiken eta ekintzen integrazioa eta koordinazioa indartzeko, lurralde-lehiakortasuna hobetu eta areagotzeko, berrikuntza-gaitasuna bultzatuz eta teknologia indartuz, lurraldearen garapen iraunkorra eta irisgarritasuna bermatuz. Horrek eragina izango du helmugaren pertzepzioa eta turismo-esperientzia hobetzeko, bai eta biztanleria egoilarraren bizi-kalitatea hobetzeko ere.

**Gatikan (Bizkaia), 2024ko azaroaren 21ean**